



Gutuna

Estatuak sortutako biktimen aitortpena?

Pasa den astelehenean, otsailak 20, gaueko albisteetan Lakuako gobernuaren Justizia-kontseilari Idoia Mendia agertu zen. 1968 eta 1978 urteen bitartean estatutak sortutako biktimen aitortpenari dagokion dekretuaren zirriborroa aurkeztu zuen.

Aitortpen hau, lehengo Eusko Jauriritzako Giza Eskubideen Sailak sustatuta, oinarritzat da Euskal Herriko gatazka politikoa-ren konponbidean, eta biktima eta haien senideentzat ezinbestekoa.

Arretaz entzun nuen Mendia andreaki esaten ari zena: «Ez da biktima hauei ordaintza egin eta kalte-ordaina ematea soilik, baizik eta dekretu honen bitartez biktima hauek denbora luzean inguratu dituen isiltasuna, utzikeria eta ahanzturazko errezela irekitzea da nahi duguna. Zigorgabetasunaren aurrean, egia aitzinetik». Eta gustukoak izan nituen bere hitzak.

Eta arretaz entzuten jarraitu nuen, horrela zioenean: «Dekretu honek ez ditu epaituko *biktimarioak* izan zitezkeen jarre-rak» —RAEren arabera, erailak—, eta haien ekintzak «ekintza desagokitzat» jotzen zituenean. Eta bere hitzak ez zitzaizkidan gustatu, hipokritak izateagatik uste dut.

Ustez aitortu behar zituen biktimak bigarren mailan kokatzen zituen berriro

Baina Justizia-kontseilariari entzuten eta ikusten jarraitu nuen, estatutak sortutako biktimen aitortpenari dagokion dekretu baten aurkezpenean —ez dezagun testuingurua ahaztu—, eta entzun nion esaten, gorria jarri gabe eta ahots tinkoz, ETAren biktimak «lasaitu» nahi zituela, bermatuz dekretu honetan ez zirela kabitzen, «ez parekatzerik ez distantziakidetasunik». Eta bere hitzek haserretu ninduten, ustez aitortu behar zituen biktimak bigarren mailan kokatzen baitzitu- tuen berriro.

Hala ere, zerbaitetan ematen diot arrazoiak Mendia andreaki, eta hedaduraz PSOEko Eusko Jauriritzari: gure anaia Mikel Salegi, Guardia Zibilak kontrol baten eraila, ez da sekula izango errepresio frankistaren sinboloa den eta hil ostean «biktimatzat» jo zuten Meliton Manzanasko torturazalearen «berdina edo baliokidea».

Norbera bere hitzen eta jarre- ren erantzulea da, Mendia andrea.

■ Miren Salegi. Amara



Lehiaketan parte hartu duten San Patricio ikastetxeko haurrak, beraien lanak eskuetan dituztela. MAITANE ALDANONDO

Urtero bezala, ikasleek elbarrien errealitatearen kontzientzia har dezaten, lehiaketa antolatu du ONCEk. San Patricio ikastetxeko haurrek parte hartu dute ekimenean, euren auzoetako irisgarritasun arazoak aztertuz.

Kalean ibiltzea ez zaie erraza egiten

Maitane Aldanondo

ONCEk eta bere Fundazioak 28. eskola lehiaketa antolatu dute. *Zure auzoa irisgarriago egin ezazu* lelopean, Derrigorrezko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako nahiz Hezkuntza Bereziko ikasleek euren inguruan dauden guneak aztertu behar izan dituzte. Itsutasuna edo bestelako urritasunen bat duten pertsonen beren kabuz mugitzeko dituzten oztopoak topatzea da helburua. Guztira hiriko bederatzi ikastetxetako 778 ikasleek parte hartu dute lehiaketan. Horieta bat, Aieteko San Patricio ikastetxea da.

Aieteko ikastetxeak urteak daramatza lehiaketa honetan parte hartzen. Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara arteko taldeek aurkeztu ohi dituzte euren lanak. Aurten, berriz, murriztu egin behar izan dute kopurua. Rosa Bellostas irakaslearen ardurapean, 9 eta 10 urte arteko 53 haurrek osatu dituzte euren marrazkiak. Bellostasek irakatsitako eskoletan egin dute proiektuaren gehiena. Lehenik, material teorikoa landu dute ikastetxean, eta ondoren, asteburu batean, kalera irten dira euren auzoetako hutsune eta akatsak topatzeko.

«Zeintzuk dira oztopo horiek?». Ikasmahaien atzean eserita dauden haurretako askok kazetariaren galdera entzun ahala altxa

dute eskua. Edukiontzia altuegiak, estali gabeko estolda zuloak, aparkatzeko leku falta, espaloiak estuegiak... Dozena bat haurrek ikusitakoa zerrendatu dute. Ondarretako Elene Redondok, esaterako, «baldosa mordoak loka dago, semaforik gabeko zebra bideak daude. Bide seinalerik gabeko bihurtune bat ere bada, eta itsuak errepidera joan daitezke», gogoratu ditu. In-txaurrondoko Abraham Varhondok, berriz, «zenbait zuhaitzen sustraiak kanpora aterata» daude; eta Aieteko Ane Lasak, itsu batzuek euren etxeen atariak identifikatzeko dituzten zailtasunak aipatu ditu, baita jendeak lurtean botata utzitako gauzeekin estropezu egin dezaketela ere.

Elbarriek dituzten ohiko oztopoak aurkitu eta irtenbideak proposatu dituzte ikasleek

Ikasleen lana, ordea, ez da akatsen berri ematea, soilik. Hauek nola zuzendu ere proposatu behar dute. Hiru eta bost lagun arteko multzoetan elkartu, eta norberak bere kabuz identifikatutakoarekin marrazkia egin dute. Irudiaren alde batean hutsunedun hiria ageri da; bestean, berriz, hauek zuzenduta izango lukeen itxura. Konponbideen berri galdetuz, kazetariak aurreko erantzun bera jaso

du, adibide anitz: semaforoa jartzea, afixa baten bidez kalea izendatzea, lauzak itsaste, edukiontzien «ahoa» jaitea...

«Guri ez zaigu kostatzen»

Lehiaketan parte hartzeko, urritasuna dutenen tokian jarri behar izan dute, egunerokoan izaten dituzten ohiko arazoez jabetu. «Kalean ibiltzea elbarriek kostatzen dakeiekeela ohartu gara. Guri ez zaigu kostatzen, horregatik, pentsatzeko modua aldatu behar izan dugu», aitortu du Lasak. «Zentzumen guztiak ondo ditugunez, guretzako ez dira zailtasuna», gehitu du Varhondok.

Lan asko izan arren, Bellondok lehiaketa «oso baikorra» dela uste du. Bereziki, kontzientzia harrazten dielako. «Lehen urtetik parte hartu dugu lehiaketan. Elbarritasuna zer den eta zer ondorio dituen lantzen dugu; baita zein motatakoa izan daitekeen ere, ez baitira itsuak bakarrik. Beraiekin jolas dezaketela, lagundu diezaietketela, harremana beraientzat aberasgarria izango dela... ohar-tzen dira. Baita, urritasunik ez dutenez, zori onekoak direla».

Auzoetan egindako lanek bat egingo dute estatuko gainontzeko ikastetxeek aurkeztutakoekin. Guztiekin, irisgarritasun mapa erraldoia osatuko dute, gazteen azterketak eta proposamenak bilduz. maldanondo@hitza.info

→ Minutu erdian

DIPC-k eta CFM-k material berriak aurkitu dute

ZIENTZIA Gainazalean eroalea, baina bolumenean isolatzailea den material baten aurkitzailetako bi dira Donostia International Physics Center (DIPC) eta Materialen Fisika Zentroa (CFM). Bost herrialdeetako ikertzaileek osatutako taldean parte hartu dute hirian egoitza duten bi erakundeek. Aurkitutako materialak, bere ezaugarriak direla eta, konputazio kuantikoan baliagarria izatea aurreikusten dute erakunde hauen partaide den Euskal Herriko Unibertsitateak. Aurkikuntza egiteko ezinbestekoa izan da teoria alorrean lan egiten duten Tomsk-eko (Errusia), Halle-ko (Alemania) eta Donostiako zientzialarien ekarpena, hauen iragarpenetan oinarritu baitute ikerlana.

Artroskopiari buruzko jardunaldiak, Miramonen

OSASUNA Euskal Herriko eta Espainiako 250 traumatologok baino gehiagok belarriko artroskopia teknikan egindako azken aurrerapenen inguruan eztabaidatu dute, gaur eta bihar, Donostian. Izan ere, Donostia Ospitalak antolatuta, Oinarritzako Kirurgia Artroskopiakoaren II. Ikastaroa eta Belarriko Kirurgia Artroskopiako Aurreratuaren III. Ikastaroa egingo baitituzte, Miramon Parke Teknologikoko Auditorioan. Berritasun gisa, jardunaldien babesle den Gipuzkoako Ospitalean, zenbait hilotzi, meniskoen, kartilagoen eta lotailu gurutzatuen ebakuntzak egingo diete.

Jolas kooperatiboen tailerra, asteburuan

HEZKUNTZA Hezkuntza eta generoa lantzen dituen InteRed Gobernu Kanpoko Erakundeak *Inklusioa eta jolas kooperatiboak* tailerra antolatu du astebururako. Erakundeak Bengoetxea kalean duen egoitzan egingo dute ekimena, eta honen dinamizatzailea, Pascal Deru aditu belgikarra izango da. Saioak larunbatean, 10:00etatik 19:30era bitartean; eta igandean, 10:00etatik 14:00etara egingo dituzte. Lantegia hezitzaile, animatzaile eta jolas kooperatiboak interesatzen zaizkion eta jolasteko prest dagoen edonori irekia da. Honen helburua, elkarlanean oinarritzen diren jolas kooperatiboak, fisikoak nahiz mahai jolasak, ezagutaraztea da. Informazio gehiagorako 943-279044 telefonora deitu.